

EUSKALTEGIEN TXOKOA 29. ZENBAKIA

# AEK euskaltegia



**Bultza** euskaltegiak!  
euskara! *æk*



- Euskaltegi sendoak behar ditugu
- Euskal Herriko herritarren %55 erdaldunak dira.
- Bide onetik goaz, urtero-urtero 45.000 lagunetik gora euskara ikasten ari baitira euskaltegietan, baita pandemiak eragindako ikasturte ezohiko honetan ere. Biba zuek!

**Zure bultzada behar dugu!**

# «Bizitzak eman didan opari handi horietako bat da Korrika»



Oier Agirresarobe. Internetetik hartua.

Aurtengo EzKorrika dela eta, Korrika erraietan daramaten bi protagonista elkarrizketatu ditugu. Batentzat euskera da ama hizkuntza, bestearentzat ez, baina, herriz-herri joaten dira Korrikako furgonetan, bihotzetik lan eginez.

Korrikaz hitz egiten hasi baino lehen, Oier Agirresaroberi begiak bete zaizkio. Elkarrizketan zehar askotan hunkitu da. Harro dago Korrikan parte hartzeaz. Bere identitatea euskerraren gainean eraikita dago. Maitatzen, sentitzen eta gozatzen du Korrikaren parte delako.

## Zer da zuretzat Korrika?

Niretzako korrika emozioa da, magia. Euskal Herrian dugun ekitaldirik hunkigarriena da nire ustez. Hitz egiten hasten naiz eta begiak betetzen zaizkit, niretzako *pasada* bat da. Beti maitasuna jasotzen dut Korrikan, berdin da zein txokotan gabiltzan, beti, maitasun pila bat ikusten dut. Eta niri, horrek, hunkitu egiten nau. Niretzako euskera oso garrantzitsua da, oso oso garrantzitsua, eta Korrikak euskerari beste ikutu bat ematen dio, beste emozio bat, beste balore batzuk. Korrikarekin asmatu egin zen. Euskerak behar zuen horrelako zerbait nire ustez. Emozio karga hori, denak elkartzen gaituna, korrika jartzen gaituena eta ez oihuka...

## Nolatan sartu zinen Korrikaren munduan?

Nik txikitik ere, Korrika ikusten nuenean, emozionatu egiten nintzen. Nire identitatea euskeraren gainean eraikita dagoela esango nuke. Euskerarekiko maitasun horrek eraman nau euskeraren aldeko urratsak ematera. Hernaniko AEKn 2004-2005 ikasturtean irakasle aritu nintzen. Irakasle izateaz gain, Korrika ardura ere eman zidaten, opari izugarri bat. Korrika arduradunak izan ginen beste lankide bat eta biok. Hernanin urte horretan goiz xamar pasa zen Korrika. Gero Luisekin, Gipuzkoako beste herri batera txanda bat egitera joan ginen, eta han eduki genuen aukera esatari lanetan hasteko. "Oier, animatu!" esan zidaten, eta animatu nintzen, eta kristoren esperientzia izan zen. Eta handik

aurrera, urtero, modu batean edo bestean, parte hartu izan dut Korrikan. Azkeneko bi urteetan, ibibilde osoa Korrikako furgonetero moduan egin dut.

## Urte luzez inguruko Korrika txiki guztietako esatari lana egin izan duzu, ezta?

Bai. Korrika arduraduna izan nintzenetik, Korrika Txiki eta Korrika Gazteetan *speaker* lana egin dut. Ahots oso potentia daukat eta mikrofonorik gabe egiten genuen. Erabat urratzen zitzaidan ezatarria, baina ni poz-ozik. Korrika Txiki eta Korrika Gazte egitea beste opari bat izan

## «Beti furgonetara energia pila bat etortzen da»

zen. Beste eskala batean daude, baina hauek ere *marabilla* bat dira. Eta Hernanin ikustea hainbeste gazte, ume, Korrikaren alde, emozio horrekin... *pasada* bat da niretzat. Bi urtetik behin, opor egunak hartzen nituen lan hau egiteko.

## Zer da Korrikako furgonetero batentzat eguna gaizki joatea?

Korrika gozada bat da, oso polita da, baino hamar egunetan zehar halako elkar bizitza batean badauzkazu goian zauden momentuak eta badauzkazu beheran zauden momentuak ere. Nekeak gain hartzen dizu inoiz, eta horixe, ezin duzu. Korrikak oso energia potentia eskatzen du. Eta gorputzak ez dizu ematen hamar egunetan, hamalau orduko txandetan, momentu guztietan, topera egoteko. Agian erdipurdi esnatu zara, ez duzu ongi konektatzen jandarekin mikroa hartzerakoan... eta magia hori lortzen ez duzunean, bada mikroa kideari pasatzen diozu, eta zu gidatzera pasatzen zara, edo beste lan batzuk egitera. Lan pila bat egoten da Korrikan. Eta ez da egun osoko *bajoia* izaten, agian

ordu batzuk zaude baju eta berehala, karrerak berak ematen dizu behar duzun energia hori.

## Zeintzuk dira momenturik hunkigarrienak?

Imaginatuko duzuen bezala, nik negarra oso erraz egiten dut. Emozionatzeko gaintasun handia daukat eta hau gustatzen zait. 14 orduko txanda batean hiru lau aldiz betetzen zaizkit begiak Korrikan. Gogoratzen dut, adibidez, Nafarroan herrigunetik urruti zegoen gune batean, hiru belaunaldi zaudela gure zain, hirurak elkarrekin lekukoa hartzeko prest, oilo ipurdia jartzen zaizu hor... Amona oinez, ezin zuelako korrikarik egin, bera ere ikusten nuen begiak beteta, alaba kabitu ezinik, iloba desbordatua... Niretzako horrelako momentuak opariak dira. Eta Korrikan momentuoro gertatzen dira. Ikusten duzunean benetan gozatzen ari dela pertsona hori, eta pentsatzea hori gertatzeko laguntzen ari zarela...

Hernanira sartzera ere niretzat oso hunkigarria da. Adibidez, udaletxeko arkupetik pasatzen garenean, hor sortzen den ohiartzuna, plaza gainezka egoten da, eta energia hori pilatzen da... *Gozada* bat da hori ikustea.

Niretzako Korrikaren klabetakoa da da beti maitasuna da

## «Euskal Herriak maitasun hori behar du, Euskerak behar du»

goela, ez dagoela gorrotorik, ez dagoela haserrik.... Ez da haserrea adierazteko ekitaldi bat, maitasun ekitaldi bat Korrika.

## Zuk lekukoa eraman al duzu inoiz?

Bai. Lehenengo aldiz Ttarla dantza taldeko lekukoa eraman nuen beste kide batekin batera 1997an. Gero, Korrika arduraduna izan nintzenean, Goizuetaraino eraman genuen Korrika, eta Ugaldetxo baino pixka bat lehentxeago edo, euskaltegiko kilometroa genuen, eta lekukoa eraman genuen Luis Intxauspe, Lur Etxeberria eta hirurok. Lankideek gorrotatu gintuzten hargatik. Uste dut emozioarekin abiadura handiegia hartu genuela eta oraindik entzuten dut komentarioren bat edo beste... kar, kar, kar...

## Zure ustez Korrikak beste errekonozimenduren bat merezi al du?

Korrika txikitik egingo dugu eta nik uste dut euskerak txikitik egingo duela aurrera, eta txikitetasun horietan eta emozio horietan, bada asmatzen badugu benetan positibotik egiten, goxo egotetik, emoziotik osatzen, uste dut gure borroka irabazita daukagula. Eta oihartzun hori iritsiko da. Ondo ari gara gauzak egiten.

## Eskerrik asko, Oier.

Eskerrik asko zuei, hau berriz bizitzen lagundu didazuelako.

Egileak:  
4. taldea



Oier euskaltegian elkarrizketatu genuen egunean ateratako argazkia.

# «Eskerrik asko, ama, ni euskalduntzeagatik»

Korrika bezala, Asier ere AEKtik sortutakoa da, eta Korrikari gertatzen zaion bezala, euskararen lekukotza eramaten du munduan zehar. Azken bolada honetan, eszedentzian dabil eta mundura bisitatzeko probestu du. Zazpi hilabetez bidaiatu du Hong Kongetik Indiara. Pandemiak bueltan ekarri du Euskal Herrira eta Nafarroako herri txiki batetik hitz egiten dugu berarekin bideodei bidez.

**Nolatan hasi zinen Asier Korrikan lanean, antolaketa?**  
Kasualitatez hasi nintzen. Nik Korrikaren inguruan dudak lehenengo oroitzapena seigarren Korrikakoa dela esango nuke. Txikia nintzen baina ia betidanik gogoratzen dut herri Korrika. Gerora, Korrika batzordeetan parte hartzen hasi nintzen, eta Korrika batzordeetan lanean hasi nintzen, hurrengo urtean, Korrika tokatzen zen eta niri, informatikaria naizenez, laguntza emateko aukera eskaini zidaten eta furgonetan lekutxo bat egin zidaten. Eta benetan ongi aprobetxatu nuen, hurrengo Korrikan ere joan nahi nuelako eta ongi egin nahi nituen gauzak... Eta hortik aurrera, Korrika guztietan ibili naiz.

**Nola definituko zenue zeren zuretzat Korrika hitz solteekin?**

Lehenengo, mundu guztiak esaten duena: euskara, poztasuna, alaitasuna, energia, indarra... baina nik esango nuke, Korrika bizkar hezurra dela, euskararen bizkar hezurra eta Euskal Herriaren bizkar hezurra bihurtzen da, gainera, hainbat egunetan.

**«Euskal Herriaren bizkar hezurra bihurtzen da Korrika hainbat egunetan»**

**Zein dira zuretzat momentu hunkigarrienak?**

Asko eta asko eta asko daude. Askotan negar egiten dugu furgonetan. Behin, hiru emakume zeuden gure zain, hirurek zailtasunak zituzten oinez ibiltzeko eta itzelezko harrotasunez hartu zuten lekukoa. Kilometro aldaketa horretan, nik ez nekien zer egin zuten emakume horiek euskararen alde herri horretan, baina herri guztiak oso ongi zaindu zituen emakume hauek, errespetu handia erakutsi zieten. Beste behin, gogoratzen dut, kilometroa aulki gurgildunean egin zuena, eta azken pausotan, beste bati lekukoa eman behar zionean, 4 edo 5 pausu eman zituen bere kabuz, harrotasun ikaragarriarekin, berak eman nahi zituen pausok, lekukoa berak eman nahi zion hurrengoari zutik, eta altxatzen ikustea, lekukoa zutunik ikustea... Ikaragarria izan zen.

Nafarroako Pirineotan koa-

drilla bat moztortuta agertzen zaigu, pankartarekin etortzen dira urtero. Eta beraiekin harremana dugu, eta oso ondo gogoratzen ditugu aurreko edizioetako moztortxoak eta. Krixtoaren koadrilla ona da.

Nire bigarren urtean, amari eman nahi nizkion eskerrak ni euskalduntzeagatik. Bera Burgosekoa da eta omenaldia egin nahi nion. Iloba euskaldunei kilometro bat erosi nien, amamari ezer esan gabe, eta nik mikroa hartu nuen eta mezua bota nion amari. Eskerrak eman nizkion amari ni euskalduntzeagatik, etxera euskara ekartzeagatik, ilobekin euskaraz egiteko aukera eman zidalako, eta nik mundu berri bat deskubritu nuelako euskararekin, eta begira, AEKn bukatu nuen lanean, Korrikan... Niretzat oso momentu hunkigarria izan zen. Zor hori sentitzen nuen amarekin. Beti eskertu izan diot hau.

**“Niretzat gailurra izan zen amari eskaintza hau egitea”**

**Kuriositatea dugu: zein usain egoten da furgonetan?**

*Kar, kar, kar...* Furgonetan bi usain nagusi egoten direla esango nuke. Lehenengo egunean, usaina ona da, oso garbi egoten gara denak, ponpoxo, baina bigarren egunetik aurrera, izerdi usaina egoten da. *Kar, kar, kar...* Korrika asko egiten dugu furgonetan goazenean, eta ez dugu garbitzeko asti handirik izaten. Eta gero janari usaina ere egon badago. Izan ere, jende askok, eskatu barik, janaria, txokolatea, pastelak, ardoa... ekartzen

KRONIKA: Hernaniko eta inguruko albisteekin argitaratzen den egunkaria delako. 2000. urtean sortu zen, Dobera Euskara Elkartearen eskutik. Hasieran 1.500 ale kaleratzen zituzten; gaur 4.000 ale egunero. Eta horretaz gain, esan behar da 1.500 irakurle dituela.

PELLO ZUBIRIA: 1958an Aginagan jaioa. Argia aldizkari zuzendaria izan zen; baita Euskaldunon Egunkari zuzendaria ere. Horren ondorioz 2003ko polizia operazio ospetsuan atxilotu zuten. Saltsa askotako perrexila dugu Pello. MAIALEN LUJANBIO: Hernanin jaioa 1976an. Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen lehen



Asier Arroita, 2020ko martxoan, Holy Festival-ean, Indian. [www.txiribuelta.eus-etik](http://www.txiribuelta.eus-etik) hartua.

dizkigu furgonetara, eta Korrikari esker onez ekartzen digute, ez guk eskatzen dugulako, eta honek leuntzen du beste usain guztia.

**Etorkizuna ikusten al diozu Korrikari?**

Nik ikusten diot etorkizuna. Gaur egun bizi dugun egoera honekin bizitzako arlo guztietan baikorra izatea ez da erraza, baina nik baikorra izan nahi dut. Berez, AEKn lanean ari dira etorkizun hori bermatzeko eta oxala etorkizun izan beharko

ez balu Korrikak, horrek esan nahiko lukeelako Euskal Herria euskaldundu dugula, eta orduan, bestelako Korrika bat egingo genuke: nahi dugulako eta gaur egun bezala, behar dugulako.

**Eskerrik asko, Asier. Plazerra izan da!**

Eskerrik asko zuei. Eta segi euskara ikasten, ederra da eta!

**Egileak: 4. taldea**

## Nor omenduko zenue Korrikan?

Iluntzeko mintzapraktikako taldea gara eta galdera honi erantzuna ematen ahalegindu gara.

Izan ere, pentsatu genuen bi gauza hartu behar zirela kontuan. Alde batetik, Korrikak Euskal Herria kontuan hartuta erabakitzen du nor izango den omendua edizio bakoitzean. Eta bestetik, Korrika pasatzen den herrikoek erabakitzen dute herri horretan nor omenduko duten.

Bi proposamen, beraz.

Taldekideon proposamenak egiteko irizpideak asko eta desberdinak zirenez, proposamenak ere bai.

Honako hauek izan dira guk aukeratutakoak:

HERNANIKOA: Kronika (kazetariak), Pello Zubiria, Maialen Lujanbio

emakumea. Bi aldiz irabazi du Txapelketa hau (2009,20017). Bertsolaritzan ez ezik, prentsan kolaboratu izan du, musikan hainbat proiektutan, irratian...

EUSKAL HERRIKOA: Patxi Zabaleta, Pirritx porrotx eta Marimotots, Gure Zirkoa.

PATXI ZABALETA: Leitza jaioa 1947an. Euskal politikari eta idazlea. Poesia, saioa, nobela antzerkia idatzi izan ditu. Politikagintzan,berriz, hainbat alderditan parte hartu izan du. Euskaltzaindiko kide ere bada. Abokatua ogibidez. PIRRITX PORROTX ETA MARIMOTOTS: 1987an sortu zen taldea. 27 ikuskizun eta 34 disko grabatu

dituzte. Guztira 400 abesti baino gehiago. Baina ez dira ikuskizun soilak, gairen bat lantzen dute euren emanaldietan jendeak (umeak eta helduak) gozatu, ikasi, sentitu eta hausnartzeko.

GURE ZIRKOA: Orain dela urte batzuk “ ¿Cómo están ustedes? ezagutu genuenok, zirkoa euskaraz egin zitekeenik ere ez genuen imajinatzen. Harik Iker Galarzak eta konpainiak Gure Zirkoa ekarri zuten arte. Meritu galanta hauena ere!

Eta zuk, nor omenduko zenue?

**Egileak: AEKko veteranoak**

# Ez Korrika - Pastora Murias

## Galego euskalduna



Pastora elkarrizketatu genuen egunean ateratako argazkia

### Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Pastora Murias naiz. Galizakoa naiz, Ourenseko Viana da Bolo herrikoa. Duela 30 urte etorri nintzen Euskal Herrira.

### Noiz eta nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

22 urte ingururekin lagun batzuekin oporretan etorri nintzen. Asko gustatu zitzaidan eta hurrengo urtean bizitzera etorri nintzen. Asko motibatzen ninduen hemengo kulturak, hizkuntzak...

Maiz, kalean euskaraz hasi eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu izan didate. Zuek hemengoak.. eta nik esaten diet ni ere ez naizela bertakoa, baina ikasi dudala.

Gainera, behin baino gehiagotan esan izan didate euskara ikasi baino, hobe nuela ingelesa ikastea. Sekulako amorrazioa ematen dit. Inglaterrara joango banintz, ikasiko nukeela erantzuten diet. Hala ere, esan beharra daukat, dakitenek nirekin euskaraz hitz egiten dutela beti. Eta horrek asko pozten nau.

### Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Argi neukan beste kultura batera nentorrela. Nik nire hizkuntza asko maite dut, galegoa, eta nire ustez zoazen tokiko kultura zein hizkuntza ezagutzea ezinbestekoa zen. Herri baten kulturaren barneratzea beste mundu bat ezagutzea da. Oso aberatsa da. Bertako kultura ezagutzea, musika, bertsolaritza.. Nire amak

esaten zuen bezala: mendira bazoaz, otsoek bezala egin ulu.

Zarautzen urtebete egin nuen baserri batean, gero Hernanira bizitzera etorri nintzen eta urte pare bat egon nintzen, eta Zestoan barnetegi bat egin nuen. Gero nire mailako talderik atera ez zenez, Amara Berrira joaten nintzen astean 3 aldiz. Hika ikasi nahi nuen, baina azkenean gauza bat eta beste ez nuen lortu. Handik aurrera euskaraz bizi izan naiz.

### Gaur egun zure hizkuntza nagusia al da euskara?

Bai, harategian bezeroekin, kalean ahal dela beti euskaraz hitz egiten dut. Nire semeei txikitatik euskara hutsean hitz egin diet. Beraiek galegoz hitz egiten ere badakite, baina ez zait ateratzen. Galiziara joaten garenean, bai. Baina erditu nintzenean haur jaioberriari galegoz hitz egin omen nion: *filho*.

Etxean beti euskaraz hitz egin izan dugu eta semea bertso eskolan ere aritu da. Tarteka bertsotan ere aritu izan da. Hori oso pozgarria da niretzat.

### Zein da Korrikari buruz duzun 1. oroitzapena?

AEK-n hasi nintzenean, Korrika 4 zela uste dut, ni AEK-n Zarautzen nengoan eta lekukoa eramanean genuen bi lagunaren artean goizeko zortzietan, oso hunkigarria izan zen. Aurretik afaria egin genuen, gero gaupasa.. Primeran pasa genuen.

Beste urte batean, Hernaniko euskaltegi zaharrean nengoela

ere eramanean nuen beste gizon batekin eta txakur batekin batera. Euskaltegitik Tilosetaraino (Korrika 7 edo izango zen).

### Korrika asko bizi izan dituzu. Bitxikeriaren bat? Unerik hunkigarriena?

Haurdun nengoela ere Korrika atera nintzen. Seme zaharrenak 3 urte zituela, eta txikia jaioberria, egoera politikoa oso nahasia zegoen Euskal Herrian. Beldur nintzen Korrika gehiagorik ez zuten egiten utziko. Agian hurrengo Korrika debekatuko zutela eta, goizeko lauretan seme zaharrenarekin atera nintzen eta senarra txikiarekin etxean geratu zen. Gaua zen. Zinkoenea jendez gainezka, suzirik betea zegoen eta semea oraindik horrekin gogoratzen da. Begiak zabal-zabal eginda joan zen bide guztian. Oso polita izan zen. Nire semea ez zedila Korrika ezagutu gabe geratu.

### Galizatik Euskal Herrira.

**Galizan meigak daude, Euskal Herrian sorginak. Eta Pastora, norekin identifikatzen da?**

**“Direnik ez da sinetsi behar, ez direnik ez da esan behar”**

Ez dakit euskaraz edo galegoz erantzun! Bien arteko nahasketak bat, biekin identifikatzen naiz. Nire amona oso meiga zen, ukenduak egiten zituen... Oso berezia zen. Herriko emagina zen, bizitza sortzen laguntzen zuen: sorgina zen.

**Egileak:**  
**Izarlokak**

# Ez Korrika kanta

**Doinua:** Goazen! (Hemendik at!)

**Hitzak:** Eguzkilore taldea (Hernaniko AEK)

Goazen, goazen, goazen, goazen (...)

Euskararen ekintzak  
hauek gure hitzak  
lekukoa eramanean  
bihotzeko txokoan

10 egun herriz herri  
hiri, parke ta baserri  
gelditu gabe Korrika  
batzuetan garrasika

Probintzi(a) denen artean  
jo ta ke segi lanean  
horrela nahi dugu lortu  
euskal gizartea sortu

Jaiki! Euskaldun guztiok  
haur, zahar, neska eta mutilok  
Goazen! Guztiok batera!  
Euskaraz bizitzera! (Bis)

Aurten ez dago Korrika  
baina bazegoen irrika  
ez dugu galdu oraindik  
gure artean da bizirik

Lekukoa dago gordeta  
ezin hasi lasterketa  
segurtasuna gogoan  
(e)ta musukoa ahoan

Jaiki! Euskaldun guztiok (...)

Euskarak hor jarraitzen du  
animatu gaitzen gu  
nahiz eta Korrika kendu  
denok batera landu

Berritu, mugi(tu), sentitu  
euskaldun izaten segitu  
atseden hartu oinek  
egin bidea ezpaineak

Jaiki! Euskaldun guztiok (...)